



Aragon Kalea, 11

01003

Vitoria-Gasteiz

945287392

675710820

info@fevapas.org

WWW.fevapas.org

Euskal Autonomia Erkidegoko IRISGARRITASUNA sustatzeko 20 / 1997 Legeak

.....komunikazio-oztopoei dagokienez **BETE GABE jarraitzen duelako**, eta FEVAPASen 25. urteurrena betetzen dela **BALIATUTA**, Federakundea osatzen dugun elkarteok honako gai honi buruzko txosten bat egin dugu:

"Irisgarritasuna eta entzuteko desgaitasuna"

Txosten horretan, pertsona gorrek gizartean aurkitzen dituzten oztopo guztiak biltzen saiatu gara, eta Eusko Jaurlaritzak, Autonomia Erkidegoko administrazioak eta lurralde- eta toki-administrazioek hartu beharreko neurriak proposatu ditugu.

Gure asmoa adierazitako dokumentua lehenik eta behin lehendakariari helaraztea da, Euskal Autonomia Erkidegoko agintari gorena den aldetik, batez ere kontuan hartuta planteatu ditugun neurriek Eusko Jaurlaritzaren sail guztiak hartzen dituztela eraginpean. Ondoren, dokumentua Eusko Legebiltzarrera igorriko dugu, eta gainerako erakundeetara geroago.

Dokumentuan proposatutako neurriak kontuan hartzea eta gure kolektiboaren bizi-kalitatea nabarmenki hobetzeko lagungarriak izatea espero dugu.

Dokumentuaren edukiari eta dokumentua zabaltzeko egindako ekintzen emaitzari buruzko informazio osatua emango dizuegu.

Eta agintari eskudunek planteatu ditugun neurriak benetan kontuan hartzea espero dugu.

2019ko Sozializazio Jarduerak

2019an, entzuteko desgaitasuna duten Euskal Herriko **25** gaztek

HARTU DUTE PARTE, batez beste,

FEVAPASek duela hogeitau urte baino gehiagotik antolatzen dituen Sozializazio Jardueretan.



Martxoaren 8tik 10era

BARRIA - Araba

Ekainaren 8an

Gasteiz

Uztailaren 1etik 10era

ETXARRI-Aranatz
Nafarroa

Urriaren 19an

Donostia

GAIAK jardueren eta parte-hartzaileen araberakoak izango dira

*"Utzi gezurrak kontatzeari" generoa

*Eskola jazarpenik ez

*Elkartasuna

*Lankidetzeta *etab.

HAUEN BIDEZ:

Tailerrak, dinamikak, jolasak...

HAUEKIN:

*Profesional espezializatuak

*Monitore boluntarioak

*ILS...

Hauen KOORDINAZIOAREKIN:

Federatutako elkarteetako eta FEVAPASeko profesionalak

Aisialdiko monitoreak

JARDUERA HORIEK

GUZTIAK ezingo

lirateke burutu

FEVAPASek dituen

MONITORE

BOLUNTARIO

taldearen

laguntzagatik eta la nagatik ez balitz.

Jarduera horien programazioa, exekuzioa eta ebaluazioa **entzuten ez duten eta entzuten duten 10 pertsonako**

TALDE bati

esker gauzatu ahal izan da.



¡ ESKERRIK ASKO !

Azaroaren 16an, larunbata, 8 monitore-boluntario Gasteizen bildu ziren, lau orduz, emozioak lantzen eta aztertzen jarduteko:

"Emozioak identifikatu eta kudeatzea eta horiekin HAZTEA"

Dinamizatzailea: Dora Gálvez- Familia Hezitzailea - Giganteando

Eta bazkari eder bat eta gero, **"Agur 2019 eta Kaixo 2020"** hausnarketa-ebaluazio-programazio bilera burutu zen, bertan zirelarik Federakunde elkarteetako profesionalak eta Fevapaseko koordinatzailea ere.

Zeinu-hizkuntzako bi interprete egon ziren bi saioetan.



**Aisialdiko
monitoreak
Ezinbesteko
BOLUNTARIOAK**

2019ko **FAMILIA—PROGRAMA**



2019an, Euskal Herriko gorren 500ETIK GORA FAMILIA artatuak izan dira FEVAPAS eratzten duten hiru elkarteetan

INFORMAZIO eguneratua, objektiboa, zabala eta zehatza

ORIENTAZIOA ETA PRESTAKUNTZA

LAGUNTZA psikologiko eta emozionala

HAUSNARKETA TALDEAK

Hainbat eremutako profesionalen **KOORDINAZIOA**

Administrazio publikoetan **OR-DEZKARITZA**

Etab.

Familien eta eragiten dien pertsonen bizitza-kalitatea hobetzeko **HELBURUAREKIN**.

FEVAPASek Federakundeko elkarteak **KOORDINATU** ditu familiei arreta eta laguntza eskaintzeko euren lan elkartu nola bateratuan.

FEVAPAS HEMEN...

- ◇ **Eusko Jaurlaritzaren** ordezkariekin, sail hauetan:
 - Hezkuntza:** Ikasle gorren dokumentazio-eguneraketa eta jarraipenerako lan-batzorde teknikoetan.
 - Osasuna/Osakidetza:** Laguntza teknikoei eta bestelakoei buruz sortzen joan diren dekretu eta arau berrien gaineko informazio-, jarraipen- eta aholku-bileretan.
- ◇ **Lehendakaria eta Politika Sozialen sailburuarekin**—FEVAPASek Irisgarritasuna eta entzumen desgaitasunari buruz prestatu duen Txostenaren aurkezpena.
- ◇ **Gasteizko Bizikidetza eta Aniztasuna Zerbitzuko** ordezkariekin: Gasteizko Irisgarritasun Integraleko Plana eta Fevapasek parte hartu duen desgaitasun-aniztasun terminologiaren dokumentuaren aurkezpena.
 - ◆ Honetako profesional **espezializatuak:** kudeaketa, publizitatea, prestakuntza, informazioa eta segurtasuna.
 - ◆ **Batekin**, Boluntariotzaren Arabako Agentzia.
 - ◆ Euskal Gorrak eta **Arabako Gorrak**. Besteak beste, PGNERako (Pertsona Gorren Nazioarteko Eguna). ◆**EDEKAN**—hileroko bilerak. ◆Etab.

INFORMAZIO GEHIAGO FEDERAKUNDEKO ELKARTEETAN / ARANSKI / ASPASOR / ULERTUZ

FEVAPAS
25 urte
Euskadiko
pertsona
gorren
familiekin

**Logotipo eta izen
aldaketa**

Sevapas

Euskal Herriko Pertsona Gorren Familien Elkarten Federakundea
Federación Vasca de Asociaciones de Familias de Personas Sordas

Aurtengo otsailetik FEVAPASek **eguneratu egin du bere logotipoa**, siglak aldatu gabe, eta beste izen bat du, hau: **FEVAPAS**

Euskal Herriko Pertsona Gorren Familien Elkarten Federakundea



EUSKARARI BABESA

Deustuko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmen bati esker, aurten Ulertuzek **3 boluntarioen** laguntza du gure haurren artean **euskararen erabilera sustatu** eta laguntzeko. Astero-astero, Nahia, Naia eta Maialen gure egoitzara etortzen dira zalantzak argitzera, elkarrizketa praktikatzen eta haurrekin jolastera.

Zuhurrak izan nahi izan dugu ikasturte honetan, proba pilotua baita, eta programa haur kopuru murriztu bati zuzendu da. **7 haur** izan dira proiektuaren onuradunak, eta banaka eman zaie arreta. Datorren ikasturtean handitzea espero dugu plaza-eskaintzea.

Hemendik **eskerrak eman nahi dizkiogu Deustuko Unibertsitateari** proiektu honetan guri toki egiteagatik; eta, bereziki, hiru boluntarioei eskertu nahi diegu hainbesteko txera, pazientzia eta ilusioz egiten duten lanagatik. Eskerrik asko!!

KOMUNIKAZIO TAILERRA SUKALDARITZAN



Urrian tailer bat hasi zen, "KOMUNIKAZIOA SUKALDARITZAN" izenekoa. Helburua da sukaldeko errezeta errazen bidez **komunikazioa bultzatzea**. **Saio bakoitzean** eguneko errezetarekin loturiko hiztegia ikasten da, jolas bat edo beste egiten da zeinu-hizkuntzan, eta abileziak elkar trukatzeko dira aukeratutako errezeta prestatzeari begira.

14 haurrek hartzen dute parte, entzule zein gorrek, gehi haur bakoitzeko beste heldu banak.

Jarduera hilero egiten da, ostiraletan, 17:30etatik 19:30etara, Gasteizko ZZ bateko sukalde batean.

Gure taldea ez da Masterchef-ekin hasiko lehian, ez da hori gure asmoa, ezta hurrik eman ere, proposatutako jarduera bidez **gazteak elkar ezagutzen joatea** bilatzen da besterik gabe, eta ondo pasatzea eta **komunikazioa gauzagarri den** espazio inklusibo bat sortzea.



2019 KORRIKA

Apirilaren 20an, Korrika Bergaratik igarotzean, inguruko gor batzuek eta Aransgiko ikasleek parte hartu zuten bertan, kolorea eta aniztasuna erantsiz.



FEVAPASETIK GABON ZORIONTSUAK OPA DIZKIZUEGU



LAGUNTZAILEA

